

MUSIKAKARIAK

Deskribapena: Kike, kalean Mikel Markezi geldiarazten ageri da.

Kike: “Aizu, barkatu e, baina Mikel Markezen sekula.. Aiba!”

Mikel: “Kike!”

Kike: “Joe Mikel! Zu zea ta! Hau kasualidadea! Bai hementxe, aizuz, berriketan egiteko tartetxo bat ba al daukazu?”

Mikel: “Bai gizona, goazen!”

Kike: “Bai, goazen, goazen!”

Deskribapena: Kike eta Mikel musika-entsaio areto batean ageri dira eserita elkarrizketan.

Kike: “Ze garrantzi izan du euskal kantagintzak euskararen normalizazio prozesuan?”

Mikel: “Nik uste, askotan ez garelako konturatzen ze tresna eraginkorra den kantua. Kantua, musika orokorrean, baina kantua bereziki. Ze, liburu batera zeuk gerturatu behar duzu, ireki, esfortzu bat egin. Baina kantua bera dator, hor altabozetatik edo dana dalako lekutik eta berak harrapatzen zaitu zu, ez? Eta nik esango nuke, e, kantu eraginkor batek, maitemintzen duen kantu batek, politikario baten hamar urteko lanak baino askoz ere eraginkortasun haundiagoa duela.”

Deskribapena: Kike kalean Berri Txarrak taldeko Gorka Urbizurekin elkarrizketan ageri da.

Kike: “Ze jende hurbiltzen da zuen kontzertuetara? Nork deitzen zaituzte? Non jotzen duzue?”

Gorka: “Bueno gu nahiko talde kamaleonikoa gara, ez? Musikalki baita ere eta jo dezakegu Kursaal batean edo gaztetxe batean edo, edo metal jaialdi batean, ez? Orduan kanpoan ere oso kontzertu ezberdinak tokatu izan zaizkigu. Noski, Euskal Herrian baino maila “underground”-eagoan mugitzen gara hori hasteko, ez? Baina bai, gero herrialdetik herrialdera ere aldeak daude, ez? Ez da gauza bera ba hori ba, Hego Korean egon ginenean, Hong-Kong-en edo ez dakit Japonen zaudenean edo, edo Mejikoko publikoa edo Brasilgoa edo ba bueno, ez dakit ba Salamancakoa edo Sevillakoa, ez?”

Kike: “Eta jendeak euskeraz ikasten al ditu letrak edo?”

Gorka: “Bueno, txapurreatzen ditu, batez ere, bai estatuan eta hortxe, bai, batzutan ateratzen dituzte euren... Ba bere garaian, guk ingelesez ikasten genituen bezala, ez? Askotan gertatzen dena da hoixe, kontzertua ikusi ondoren interesatzea letrekin edo. Euskal Herria ez da guk uste dugun bezain ezaguna Euskal Herritik kanpo eta hor saiatu behar dezu esplikatzen nondik zatozen eta zure hizkuntza zein den eta lantxo bat egin behar dezu, lan extra bat ez? Baina bueno pozik.”

Deskribapena: “The Uski’s” taldearen entsaio lekuan elkarrizketan ageri da Kike bertako bi partaiderekin.

Kike: “Nola ikusten duzue euskal musikaren etorkizuna?”

Lehenengo partaidea: “Nik ondo ikusten dot ze uste dut abanikoa oso zabalik dagola eta gaur egun errazagoa dala disko bat aterati, ordenadore baten, estudio txikixetan, eta oso... talde asko dauela, jenero ezberdinetakuak.”

Bigarren partaidea: “Azkenaldian hori ikusi da. Ja itxi dugu atzian geure insignia zan Rock radikala da ja sartu gara apur bat denetarikan da sartu gara Pop-ien, sartu gara Soul-an, Rock&Roll-an da bueno, horixe, goraka doa.”